



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta •

2004/01/27

AKTA

Udalbatzarraren ohiko bilkura

EGUNA: 2004ko urtarrilaren 27a.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

DEIALDIA: Lehena **HASIERA-ORDUA:** 19:15 **AMAIERA-ORDUA:** 19:40

BERTARATUAK: **Alkatea**
Mirari Arruabarrena Elizalde

Zinegotziak

Eugenio Cotado Iturain, Noemi Ostolaza Arkauz, Andoni Sarasua
Oliden, Maria Elena Legarra Alfaro, M. Jose San Sebastian
Aranburu, Ramon Etxeberria Aldaz, Martxiel Genoba
Solaberrieta, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez
Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK: Eneko Olariaga Arruti, herritik kanpo dagoelako.



Aztergai zerrenda

- 1.- Onartzea, egoki bada, 2003ko abenduaren 29ko ohiko bilkurako akta.
- 2.- Onartzea, egoki bada, Orioko Hondartzako esku hartze urbanistikorako Areako (AIU3) urbanizaziorako lanen kontratazioa.
- 3.- Berretsi, egoki bada, 2003ko abenduaren 17an Urola Kostako Mankomunitateak ohiko Batzar Orokorrean adostutako akordioa, Mankomunitatearen Estatutuak aldatzeko onarpenari dagokiona.
- 4.- Onartzea, egoki bada, doan uztea Orioko Udalari Itsas Etxearen erabilera eta onartzea, egoki bada, erabileraren hitzarmena, eta Alkateari ahalmen zabala eman hitzarmena sinatzeko.
- 5.- Onartzea, egoki bada, Udal Elkartearen proposamena “GIPUZKOA ETA DONOSTIA KUTXA”-ko Gobernu Organoen izendapenean parte hartzeko.
- 6.- Eskariak eta galderak



Esan-eginak

1.- ONARTZEA, EGOKI BADA, 2003KO ABENDUAREN 29KO OHIKO BILKURAKO AKTA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin[Aldeko 9 boto: Cotado (EA), Ostolaza (EAJ), Sarasua (EAJ), Legarra (EA), San Sebastian (EAJ), Etxeberria (EAJ), Genoba (EAJ), Azkue (EA) eta Rodriguez Pousa (PSE-EE). Abstentzio boto bat:Arruabarrena (EAJ)]:

ONARTZEA Udalbatzarrak 2003ko abenduaren 29an egindako ohiko bilkurako akta.

Alkateak hartu du hitza eta adierazi du herritik kanpo zegoelako ez zuela bilkura hartan parte hartu, eta hori dela eman duen abstentzio botoaren arrazoia.

2.- ONARTZEA, EGOKI BADA, ORIOKO HONDARTZAKO ESKUHARTZE URBANISTIKORAKO AREAKO (AIU3) URBANIZAZIORAKO LANEN KONTRATAZIOA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Lehiaketa publikoaren oinarriak 2003ko azaroaren 6ko 212. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta 2003ko azaroaren 6ko Europako Komunitateen Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian argitaratu dira, eta lehiaketa publikoaren epean hamazazpi lehiakide aurkeztu dira:

1.- Aldi baterako enpresa-elkartea: ASFALTOS NATURALES DE CAMPEZO, S.A. eta ARIAN CONSTRUCCIÓN Y GESTIÓN DE INFRAESTRUCTURAS, S.A.

2.- ALTUNA Y URIA, S.A.

3.- Aldi baterako enpresa-elkartea: CONSTRUCCIONES SUKIA ERAIKUNTZAK, S.A. eta ANTZIBAR, S.A.



4.- Aldi baterako enpresa-elkartea: PAGOZELAY GOIZABAL, S.L. eta INSTALACIONES INABENSA, S.A.

5.- Aldi baterako enpresa-elkartea: URBANIZACIONES IRUÑA, S.A. eta CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.

6.- ACS, PROYECTOS, OBRAS Y CONSTRUCCIONES S.A.

7.- FERROVIAL AGROMAN, S.A.

8.- Aldi baterako enpresa-elkartea: CONSTRUCCIONES MOYUA, S.A. eta CONSTRUCCIONES MURIAS, S.A.

9.- Aldi baterako enpresa-elkartea: OBRAS ESPECIALES NAVARRA, S.A.-OBENASA- eta URBICOLAN, S.L.

10.- CONSTRUCCIONES GALDIANO, S.A.

11.- Aldi baterako enpresa-elkartea: EXCAVACIONES VDA.DE SAINZ, S.A. eta CONSTRUCCIONES ECHAIDE, S.A.

12.- Aldi baterako enpresa-elkartea: CONSTRUCCIONES BRUES, S.A., FERNANDEZ CONSTRUCTOR, S.A. eta IMOEL, S.A.

13.- Aldi baterako enpresa-elkartea: CONSTRUCCIONES AMENABAR, S.A. eta CONSTRUCCIONES UBIRI, S.L.

14.- NECSO ENTRECANALES CUBIERTAS, S.A.

15.- Aldi baterako enpresa-elkartea: CONSTRUCCIONES MARIEZCURRENA, S.L. eta CONSTRUCCIONES ZUBIEDER, S.L.

16.- CONSTRUCCIONES AZPIROZ Y SARALEGUI, S.L.-AZYSA-

17.- CONSTRUCCIONES Y PROMOCIONES BALZOLA, S.A.

Kontratazio mahaiak proposatu du Orioko Hondartzako esku-hartze urbanistikorako (AIU3) areako urbanizaziorako lanen kontratazioa honako honi adjudikatzea: aldi baterako enpresa-elkartea osatuko duten URBANIZACIONES IRUÑA, S.A. eta CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.-ri, berea baita puntuaziorik altuena lortu duen proposamena, baldintza ekonomiko-administratiboen pleguaren 9. artikuluan ezarritako adjudikazio irizpideen arabera.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta, kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):



1.- BALIOZKOTZAT JOTZEA 2003ko abenduaren 22an egindako plikak irekitzeko ekintza.

2.- Aldi baterako enpresa-elkartea osatuko duten URBANIZACIONES IRUÑ A,S.A. eta CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A.-ri, **BEHIN BETIKOZ ADJUDIKATZEA** Orioko Hondartzako esku-hartze urbanistikorako (AIU3) areako urbanizaziorako lanen kontratazioa. Urbanizaziorako lanen kontratazioaren prezioa honako hau da: **5.835.736,83** euro (gastu orokorrak, mozkin industrialak eta BEZ barne).

3.- ONARTZEA Orioko Hondartzako esku-hartze urbanistikorako (AIU3) arean obrak egiteko hobekuntzen aleko ondorengo prezioak:

- Meabe tipoko espaloi ertza: 19,80 euro metro lineala.
- Granitozko espalo ertza: 16,20 euro metro lineala.
- Pavigran tipoko galtzadarria (21X14X6,5zm.): 25,60 euro metro karratua.
- Arrizabalaga motako lur-azpiko kontenedorea: 28.416 euro unitatea.

4.- ARGITARATZEA erabaki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

5.- AHALMEN ZABALA EMATEA Orioko alkate Mirari Arruabarrena Elizalderi Orioko Hondartzako eskuhartze urbanistikorako (AIU3) areako urbanizaziorako lanen kontrataziorako behar diren agiri administratibo eta publiko guztiak izenpetzeko Orioko Udalaren izenean.

6.- BETETZEA baldintza ekonomiko-administratiboen pleguan ezarritako betebeharrak guztiak, udal erabaki hau behar bezala exekutatzeko.

3.- BERRETSI, EGOKI BADA, 2003KO ABENDUAREN 17AN UROLA KOSTAKO MANKOMUNITATEAK OHIKO BATZAR OROKORREAN ADOSTUTAKO AKORDIOA, MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUAK ALDATZEKO ONARPENARI DAGOKIONA.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Idazkariak hartzen du hitza eta zera adierazten du: estatutuak aldatzearen helburua idazkari kontu-hartzailearen lanpostua sortzea eta betetzea da, funtzio publikoaren araubideak aurreikusten dituen bideetako bat erabiliz eta horren bidez kargu horretan dagoen hutsunea betetzeko.



Beraz, hauxe da Urola Kostako Udal Elkarteko estatutuetan proposatzen den aldaketa:

Indarrean dagoen 10. artikulua honakoa dio:

“10. artikulua.

Batzorde Exekutiboak, Idazkari bat eta kontu-hartzaile bat edota Idazkari Kontu-hartzaile bat izendatuko ditu, kargu horiei dagozkien berezko eskuduntzekin. Izendapena preferenteki Udalerrri kideetan kargu berdina betetzen duten titularretara joango da.

Jatorrizko Udalean bere funtzioak utziz gero, ez du kargu hauetariko inork bereganatuko Mankomunitatean enplegu ezta iraupeneko eskubiderik.

Halaber, Batzar Orokorrak zehaztuko du Gordailuzain bezala jardungo den pertsona, Mankomunitateko kide bat izan daitekeelarik. Kasu horretan, Mankomunitateko gainerako kideek haren kudeaketaz solidarioki erantzungo dute.”

Proposatzen den 10. aldaketak ondorengoa dio:

“10.artikulua.

Batzorde Exekutiboak, Idazkari bat eta kontu-hartzaile bat edota Idazkari Kontu-hartzaile bat izendatuko ditu, kargu horiei dagozkien berezko eskuduntzekin. Izendapena preferenteki Udalerrri kideetan kargu berdina betetzen duten titularretara joango da.

“Kargu hori aurreko pasarteak adierazitako moduan ezin bada bete, Batzorde Exekutiboak Funtzio Publikoaren araubideak aurreikusten dituen bideetakoren bat erabili ahal izango du horretarako”.

Halaber, Batzar Orokorrak zehaztuko du Gordailuzain bezala jardungo duen pertsona, Mankomunitateko kide bat izan daitekeelarik. Kasu horretan Mankomunitateko gainerako kideek haren kudeaketaz solidarioki erantzungo dute”.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

BERRESTEA, 2003ko abenduaren 17an Urola Kostako Mankomunitateak ohiko Batzar Orokorrean adostutako akordioa, Mankomunitatearen Estatutuak aldatzeko onarpenari dagokiona.



4.- ONARTZEA, EGOKI BADA, DOAN UZTEA ORIOKO UDALARI ITSAS ETXEAREN ERABILERA ETA ONARTZEA, EGOKI BADA, ERABILERAREN HITZARMENA, ETA ALKATEARI AHALMEN ZABALA EMAN HITZARMENA SINATZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak 2003ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, honako erabakiak hartu zituen:

1.- Orioko Itsas Etxearen erabilera 50 urtez lagatzea dohainik Orioko Udalari, gizarte sorospenaren arloko jarduerak egiteko egoitza gisa erabil dezan.

Hitzarmenari erantsitako planoan adierazitako gunea bakarrik erabili ahal izango da, zehazki, honako areto hauek: 7 m²-ko itxaronaldi aretoa, podologia zerbitzurako 9,89 m²-ko aretoa, eta ile-apaindegi zerbitzurako 24,60 m²-ko aretoa, 4,16 m²-ko komunarekin.

2.- Erabilera doan lagatzeko hitzarmena onartzea.

Hitzarmenaren klausula garrantzitsuenak honako hauek dira:

- **Bigarren.-** Orioko Udalak aurreko puntuan adierazitako helburuetarako bakarrik erabiliko du lagako zaion eraikina, hau da, gizarte sorospenaren arloko jarduerak egiteko egoitza gisa erabil dezan.
- **Laugarren.-** Udalari beharrezkoak iruditzen zaizkion egokitze lan guztiak Orioko Udalaren kontura izango dira, eta lan horiek Itsas Etxeari erantsiak geratuko dira.

Lagatako ondasunean edozein motatako obrak egin ahal izateko, Gipuzkoako Foru Aldundiak idatziz baimendu beharko ditu, eta azken horrek obrak berrikusteko eskubidea beretzat gordeko du. Nolanahi ere, egiten diren obrak jabetzaren onurarako izango dira, inolako kalte-ordainik jasotzeko eskubiderik eman gabe.

- **Boskarren.-** Lagatako ondasunaren mantenu eta zainketa gastuak, ura, argi, telefono, garbiketa, hiri-lurraren kontribuzio, saneamendu, zabor, kalteengatiko aseguru eta beste edozein gastu aplikagarriak Orioko Udalaren kontura izango dira hitzarmen hau sinatzen denetik aurrera.
- **Seigarren.-** Lagapendunak ez balitu ezarritako baldintzak beteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak lagapena indargabetu ahal izango du.

3.- Gizarte Politikarako Departamentuko foru diputatuari ahalmena ematea erabileraren lagapen hitzarmena sinatzeko eta, oro har, erabaki honi



eraginkortasuna emateko behar diren egintzak burutu eta bidezko agiri publiko zien pribatuak baimendu ditzan.

4.- Gipuzkoako Batzar Nagusiei erabaki honen berri ematea.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da eta gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU AHO BATEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin (10 baiezko boto):

1.- ONARTZEA Orioko Itsas Etxearen erabilera 50 urtez lagatzea dohainik Orioko Udalari, gizarte sorospeneren arloko jarduerak egiteko egoitza gisa erabil dezan.

Hitzarmenari erantsitako planoan adierazitako gunea bakarrik erabili ahal izango da, zehazki, honako areto hauek: 7 m²-ko itxaronaldi aretoa, podologia zerbitzurako 9,89 m²-ko aretoa, eta ile-apaindegi zerbitzurako 24,60 m²-ko aretoa, 4,16 m²-ko komunarekin.

2.- ONARTZEA erabilera doan lagatzeko hitzarmena. Hitzarmena erabaki honen I. eranskinean jasota dago.

3.- Orioko Udaleko alkatea den Mirari Arruabarrena Elizalde andereari ahalmena ematea erabileraren lagapen hitzarmena sinatzeko eta, oro har, erabaki honi eraginkortasuna emateko behar diren egintzak burutu eta bidezko agiri publiko zien pribatuak baimendu ditzan.

5.- ONARTZEA, EGOKI BADA, UDAL ELKARTEEN PROPOSAMENA “GIPUZKOA ETA DONOSTIA KUTXA”-KO GOBERNU ORGANOEN IZENDAPENEAN PARTE HARTZEKO.

Udalbatzarrak gaiaren berri jakiten du.

Alkateak bertaratu direnei adierazten die aipaturiko erakundean ospatuko diren hauteskundeak direla eta, berauetan parte hartu eta honela Gipuzkoa eta Donostia Kutzako Gobernu Organoetan ordezkaritza lortzeko aukera dagoela udalen bilkura medio. Zentzu horretan, ondoren aipatzen diren udalen bilkura proposatzen du: Orioko Udala, Elgetako Udala eta Amezketako Udala.

Udalbatzarra jakinaren gainean geratzen da, eta alkateak egindako proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, **HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, BOZKETA BIDEZ**, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [Aldeko 9 boto: Arruabarrena (EAJ), Cotado (EA), Ostolaza (EAJ), Sarasua (EAJ), Legarra (EA), San



ORIOKO UDALA

ORIO (GIPUZKOA)

Udalbatzarraren bilkurako akta •

2004/01/27

Sebastian (EAJ), Etxeberria (EAJ), Genoba (EAJ) eta Azkue (EA). Abstentzio boto bat: Rodriguez Pousa (PSE-EE)]:

ONARTZEA, ondoren aipatzen den Udal Elkarteen proposamena (Orioko Udala, Elgetako Udala eta Amezketako Udala) “GIPUZKOA ETA DONOSTIA KUTXA”-ko Gobernu Organoen izendapenean parte hartzeko.

6.- ESKARIAK ETA GALDERAK.

Ez ziren izan.

Horrenbestez, bilkurari amaiera ematen zaio eta, erabakitakoa jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen ontzat emanarekin.

ALKATE-PRESIDENTEA

IDAZKARIA